

GUaiXe.eus



Fernando Urra,
supermotarden,
3.a Villenan



Kirolak >> 14

Santiago eta Santa Ana, Bakaikuko
eta Olatzagutiko festak. Burundako
bi herrietan **ospakizunak**
astelehenera arte izanen dira



Sakanerria >> 6

Arakilen kalitatea, moderatua

6-9 >>



Hondakinen kudeaketan prestatzen >>3



Arakilgo Eguna
hartuko dute
Itxasperrik eta
Etxarrenek >>5



Urdiaingo toki
izenak mapa
batean jaso
dituzte >>7



Etxarrin, 24
orduz libre
dinamika gaur
abiatuko da >>10



AHTren
kontrako
martxa Sakanan
barna >>10



Olatziko San
Migel pilota
txapelketako
finalak >>12

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Gorka Senar Rekalde
ZORIONAK txapel-dun! 9 urte jada. Ondoko pasa zure egunean! Muxu handi bat familiaren partez.

Amaiur Cuadrado Nicolay
9 urte! Nola pasatzen den denbora! ZORIONAK etxeko guztien partetik!!!



Maddi Gastaminza Betelu
Astehenean 8 urte beteko dituzu. ZORIONAK Maddi! Ama, aita, Oihan eta familiaren partez muxu asko eta ongi-ongi ospatu, politte. MUAKSSS!!

Iraide Arretxe
ZORIONAK ttikitto!!! Maite zaitugu. Mila muxu denon partetik.



ZORIONAK Belatz eta Ekain. Egun politte pasatu zuen urtebetetzean. Muxu handi bat. Aita eta ama.

ZORIONAK printzeal Altsasuko zure familiaren partez, bihotz-bihotzez ondo pasa eta disfrutatu asko zure eguna.

garilak

24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Esencia Jazz. Garilaren 24an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

Txep, Skarmentu eta Dj plazan. Garilaren 25ean, larunbatean, 23:00etan Etxararren.

Woodstock Blues Band. Garilaren 26an, domekan, 1:00etan Olatzagutiko Clinker tabernan.

Dokumentalak

Aske gunea, desobediencia bete bete. Garilaren 24an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Zinema

Annie. Garilaren 29an, asteazkenean, 22:00etan Irurtzango Foru plazan.

Mendi irteerak

Nerin-Perdido (Ordasa). Garilaren 24tik 26ra, ostiraletik igandera. Etxarri Aranazko Larrañeta mendi taldea.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Ariaban-Altsasu. Garilaren 25ean, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune partetik. 125 km. Zikloturista taldea.

Bestelakoak

24an 24 orduz libre. arilaren 24an, ostiralean 21:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko plazan.

Arakilgo Eguna. Garilaren 25ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Itxasperrin eta Etxararren ondoren.

Haurren eguna. Garilaren 25ean, larunbatean, 14:00etatik aurrera Urdiaingo igerilekuan. Bazkaria, jolasak eta puzgarriak.

Guaixe.eus-eko komunitateko kide egiteko. Garilaren 29an, asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara Altsasuko azokan.

Udako festa goxoa. Garilaren 30ean, ostegunean, 21:00etan Uharteko Arakilgo igerilekuan. **12 urtetik aurrerako gazteendako.**

AHTren aurkako III. Bizikleta-Martxa desobeditzailea. Garilaren 29an eta 30ean, asteazkenean eta ostegunean, Sakanan barna.


Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 24an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarriko plazetan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

>> Altsasu

Altsasuko kartel lehiaketa. Behekoak finalistak dira. 16 urtetik gorako altsasuarrek haietako baten alde botoa eman dezakete hilaren 30era arte. Botoa lortia kultur gunean, 012 telefonora hots eginez edo www.altsasu.net web orriaren bidez egin daiteke.



Ostiraleroko SAIOA


9:30etan

Gaurko gaiak:

- Mariano Galartza
- Nagore Oejo
- 24 ordu libre dinamika

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Eneida



107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Hondakinekin nola lan egin ikastera

15 sakandar hiri eta industria hondakinen kudeaketan prestakuntza jasotzen hasi dira eskola tailerrean

Astlehenean elkartu ziren aurreneko hondakinen kudeaketa eskola-tailerreko 15 ikasleak. Nagore Ocejo zuzendari-irakaslearekin eta David Gonzalez irakaslearekin sei hilabetez ariko dira. Haiekin hiri eta industria hondakinen kudeaketa integrala egiten ikasiko dute. Ebaluazio jarraia eta azterketen bidez ikasketen aprobetxamendua aztertuko dute irakasleek eta gaindituz gero, bukeran, guztiak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako bigarren mailako profesionaltasun ziurtargiria eskuratuko dute. Hiri eta industria hondakinen kudeaketa integralean gaitasun profesionala ziurtatzen du.

Ocejok azaldu digunez, ikasleek bi hilabete eta erdian prestakuntza jasoko dute. Denbora horretan hiru modulu osatuko dituzte: hiri hondakinak, industria hondakinak (laborategiko praktikak



Ikasleak. 40 pertsona aurkeztu ziren eskola tailerreko hautaketa prozesura. 15 aukeratu dituzte: 12 altsasuar eta irurtzundar, etxarriar eta olaztiar bana. Horretarako irizpideak izan dira ikasleetako bostek 30 urte baino gutxiago izatea eta gainontzeko 10ek 45 urte baino gehiago izatea. Ikasle-langileak dira eta hurrengo urte erdian lanbide arteko gutxieneko soldata jasoko dute.

barne) eta lan osasuna eta segurtasuna. Gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak hondakinen inguruan antolatutako uda ikastaroan ere parte hartuko dute. Hondakinen kudeaketarekin batera prestakuntza orokorra ere jasoko dute: sentsibilizazioa, informatika pixka bat, berrikuntza... Hondakinen kudeaketaren inguruko sentsibilizazioa azpimarratu nahi izan du Ocejok. Bisita asko jaso eta eginen dituzte ikasleek.

Eskola tailerren gainontzeko lau hilabete eta erdiak praktika profesionalak egingen dituzte Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuan eta hondakin arloan lan egiten duten Kerabi eta Vermican enpresetan. Ikasle guztiak hiru enpresetatik pasatuko dira hondakinen kudeaketaren ikuspegi osoago bat izateko. Eskola tailerra bukatu ondoren haiek lau 3 hilabetez aipatu bi enpresetan lanean ariko dira (3 Vermicanen eta bestea Kerabin).

Zergatiaz
Sakanako Garapen Agentziako

(SGA) Iker Manterolak ikasleei eskola-tailerren testu-ingurua azaldu zien. "Europako Batasunak gero eta asmo handiagoko legediak onartu ditu hondakinen birziklatzearen arloan". Orain arteko ekonomia lineala bazterrean utzi nahi du Europak (ekoiztu, kontsumitu eta hondakinak hondakindegira) ekonomia zirkularra indarrean jarri. Azken horren arabera hondakinak lehengai bihurtzen dira, haien bidez berriro ekoiztu ahal izateko.

Mank-ek indarrean jarritako hondakin bilketa sistema ezberdinen bidez lortu nahi duena da: "sortu eta berehala hondakinak birziklatzea garrantzitsua da. Jaso eta ondoren banatzea askoz ere zailagoa delako". Manterolak gogorazi zien Mank eta SGA Europako beste eskualde batzuekin batera Valorg proiektuan sartuta dagoela. Haren bidez, "materia organikoaren kudeaketaren bidez lanpostuak sortzea aztertzen ari gara".

Europatik adierazitakoa ere nabarmendu zuen: "birziklatze

portzentajeak handituz lanpostuak sortzeko aukera dago". Horretarako, legediekin batera prestakuntza behar dela eta horixe kokatu zuen eskola tailerra

Manterolak. Birziklatzearen komunikatzearen garrantzia nabarmendu zuen, "ingurumenagatik eta hondakinak aberastasuna, lehen gaia direlako".

Antolatzaileak

Eskola tailerra Sakanako Mankomunitateak, Kerabi Gestion Medioambiental, SLK (Etxarri Aranatz) eta Vermican Soluciones de Compostaje, SLK (Iruña) sustatu dute. Izan ere, lege aldaketak batek administrazioekin batera enpresa pribatuek ere parte hartzeko aukera zabaldu du. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Enplegu Ministerioak finantzatzen dute. Europako Gizarte Funtsak ere diru ekarpena egiten dio tailerrari. Bestalde, Inafrek eta NUPen laguntzaileak dira. Tailerrak 128.620 euroko aurrekontua du.

Enpresen iritzia

Kerabiko Horacio Goñik prestakuntza modulu bat sortzeko aukera izatearen "garrantzia" nabarmendu du. Duen eskarmentuagatik ezinbestekoa ikusi du "egunerokoan hondakinekin lan egiten duten pertsonen euren lanaren zentzua ematea" eta "eguneroko horretan motibazioa eta kontzientzia izateko birziklatze katean sartzea". Hondakinen kudeaketa egiten du Kerabik.

Vermicam-eko Joseba Sanchezek, berriz, eskola tailerrarena "inon ez dagoen proiektu polita" dela adierazi zuen. "Sakanako ekonomia dinamizatzeko aukera berria da". Ekonomia zirkularri egingen dion ekarpena nabarmendu zuen. Aldi berean, gogorazi zuen enpresak aurretik bazterketa egoeran dauden pertsonak kontratatu dituela. "Filosofia hori dugu eta eskola-tailerrenaren egoki jo genuen". Enpresak auzo-konpostagailuen inguruko aholkularitza eta laguntza eman izan dio Mank-i.



Txartel freskagarria

Zozketak

UZTAILAK 30

Iru bide jatetxean Altsasu
2 laguntzako bazkaria.

Lizardi estetika zentroan (Etxarri) aurpegiko lifting-a.

Errotainen (Urdiain)
2 laguntzako zaldi ibilaldiak.

Uztailaren 23ko **SARITUA:**
Yoli Fdez. de Garaialde

Oporretatik bueltan... sorpresa gehiago!



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

Aldaketak pil-pil

Eta bizkaitar itxura ez. Dena ez da tresna batean sartzen pixkanaka berotzeko zapore ezberdinak osatzen: gelatina antzeko borobilketa, edo?

Iberia ekialdean, bi pil-pil ezberdinak osatu dira, eta lehiaketarik ez zegoen. Antxeta urdinak, frankistak esan dezagun, elkar-

tu dira "jogurin" antzeko gazte "hiritar bizilagunak" deitzen direnekin. Eta bakailao berezia prestatu dute: "new right"eko itxura. Azarotik aurrera, ezagutuko ahal ditugu???

Bestetik, sozialdemokrata deitzen direnak, interesa medio dela eta, ikurrina handi baten pean

"Ahalegina"-koekin indarrak elkartu dituzte. Beraiantzat ez gustukoa! Noiz arte orduan? Itxurako Santxez batek, alternatiba izatekoekin, bere arima deabruentzat salgai ... Boterea jasoko balu: enteratuko gara nor demontre den Sancho (Panza ez) kapere hau?

Nafarroan, pil-pilak berez zapore gehiagorekin: sukaldaritza gustatzen zaigu eta bazen garaia! Ea ba nolako pil-pila. "Xabierraldia" - "Uxuealdia" bihurtzen bada, "Navarrissimmo" eta ondokoak: Lizarrako bidea hartuko dute Errioxan babeslekua irabazteko? Burgostarrek, Erri-

berako eta bestaldeko mariatxekin: "kanpotik etorritakoak etxe-koak pikutara botatzeko"... Pentsatzen genuen Nafarroa galdua zegoela! Aurrera ba eta ondo prestatu pil-pila lehiaketa irabazteko, mesedez. Baskongadarrrek sendoago izateagatik aurrera doaz, ahal dugu?

barrutik kanpora

Hondakin plan berria Nafarroan

Ekainaren amaieran parte hartu genuen Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integral (NHKPI) berria egiteko prozesu parte-hartzailearen barruan egin zen azken bileran. Gogoratu beharra dago aurreko NHKPI-ari helegitea jarri zitzaioela, hondakinak erraustea aurreikusten zuelako, eta plan hura behin betirako bertan behera geratu zela. Gero, Nafarroako Gobernuak Nafarroan errausketa baztertzeko zuela iragarri ondoren, itzaropen

handia sortuzen NHKPI berria errausketarik gabeko kudeaketa beste eredu batzuei atea irekiko zitzaiolekoan.

Aipatutako bileran errefusaren gaia eta berau tratatzeko aukerak aztertu ziren. Eta hara hor gure ezustea, Nafarroako Gobernuaren teknikariek berriz ere errausketaren mamua aireztatu zutenan, errefusarekin helburu bezala, besteak beste, zementu-fabriketan erre ahal izateko zenbait gai ekoiztea proposatu baitzuten.

3MBrendako argi dago zementugileen eta hondakin kudeatzailen interes ekonomikoak daudela "konponbide" hauen atzean, eta horien artean dago bileretan parte hartzen duen FCC ere. Ez dago bestela, Portland-en errausketa ezartzeak sortu duen aurkako mugimendua kontuan izanik, berriz ere gai hau mahai gainean jartzea ulertzeko modurik.

Sarritan azpimarratu dugu errausketa dela hondakinak gainetik kentzeko modurik jasangaitz

eta arriskutsuena. Eta hau justifikatu nahian, Nafarroako Gobernuaren teknikariek Europak ezartzen duen lehentasunen hierarkiarajotzen dute, azken bimailetan errausketazabortegean pilatzearen aurretik dagoela esanez.

Aipatutako hierarkian errausketak maila bat igo zezan errausketaren aldeko lobby-ek egin zuten presioaz gain, ezin da ahaztu zabortegeetan hondakin pilaketak asko aldatu duela Kyotoren garaian ezagutzen genuenetik.

Gaur egun, beste hainbat tratamendu pasatu ondoren geratzen den materia inerteza pilatzea hondakinak erraustea baino askoz ere gomendagarriagoa da.

Ez badu inork bere etxe ondoren hondakinik errausterik nahi, inoiz baino arrazoi gehiago dago hondakin horien errausketa alferrikakoa egingo luketen beste eredu batzuk aztertzeke.

3Mugak Batera
<http://olaztinerrausketarikez.blogspot.com.es/>

hara zer dien

Gu ere eraso sexistaren kontra!

Nola ez aprobetxatu Guaixek eskaintzen digun aukera hau, Euskal Herri osoan egiten ari diren eraso sexistaren aurkako kanpainari gure ekarpena emateko?

Nahiz eta egunerokoak izan, guztiok entzuten ari zaretenez, festetan ere gertatzen diren eta gertatzen ari diren eraso sexistez hitz egin nahi dugu: batzuk oso nabariak dira, beste batzuk ia oharkabeak, gure kulturarekin oso-oso loturik baitaude.

Jaiak dira kulturaren adierazpen handienetarikoa, eta horregatik gure errealitatearen adierazpena ere: egun gutxi batzue-

tan kondentsaturik agertzen dira ohiturak, erritoak, emozioak... eta euforia. Honekin batera, eta erremediorik jartzen ez badugu, sortzen da indarkeria sexista: irain bat, begirada edo piropo zikin bat, ipurdian jotzea, ukitzea... bortsatzearen saiakerara iritsi arte edo bortsaketara.

Hau dena gure errealitatearen zatia da, emakumeen desbalorizazioa bulkatzen duten sinismen eta baloreak erakusten dituena. Beraz, indarkeria sexistarekin bukatu nahi badugu, gure kultura eta jendarte (emakumeen eta gizonen) harremanak aldatu behar ditugu, matxismoa ez erre-

pikatzeke. Eta hau guztion ardurada; ezinbestekoa dugu denon konpromisoa.

Bi ildotan lan egin behar dugu: alde batetik, gizonak eta mutilek eraso sexistak ez egitea, eta beste egindakoak ez ukatzea; eta, beste aldetik, emakumeek beldurrik gabe eta nahi duguna eginez bizitzea.

Helburu hauekin Altsasuko Udalak kanpaina bat martxan jarri nahi du. Baina lehen esandakoarekin batera, arrakastatsua izateko guztion parte-hartzea eta konpromisoa behar da: emakumeena, gizonena, talde sozialena, koadrilena... guztiona, 'eraso sexistaren kontra', 'ezezta, beti ezetz', 'festak errespetuz eta berdintasunean bizi' leloak jaietan (eta urte osoan) praktikan jartzeko.

Idoia Goikoetxea, Altsasuko berdintasun teknikaria

objektibo tik

Bargagainen mendizaleen topagune:
Ilgandean 150 mendizale eta altsasuar inguru bildu ziren Bargagainen, Altsasuko Mendigoizaleek antolatutako finalista festan. Meza, auzatea eta zortzikoa ez ziren faltatu erromerian. Bestalde, Mendigoizaleek zozketatutako urdaiazpikoa Hodei Alegrek irabazi zuen.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitate@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

>> Arakil

Santiago eguna, Arakilgo eguna

Larunbatean, 11:00etatik aurrera Itxasperrin eta Etxarrearen ondoren

Bihar, garilak 25, arakildarrek ibarreko festa ospatuko dute. Arakilgo 12 herrietako bizilagunen bilgune bihurtuko da, atzera ere, Itxasperriko Santiago zelaia. Eguerdiko ospakizuna han egingen da, eta ondoren festa Etxarrenera pasako da. 2004an hasi ziren ospakizuna Itxasperrin eta ibarreko herri batean egiten eta,

beraz, hala ibarreko herri guztietatik pasako da ospakizuna.

Ohi bezala, Itxasperriko ermitan meza izanen da. Arakildar mordoak elkartuko dela baliatuta udalak herriko adinduek eta nabarmendutako arakildarrak omenduko ditu. Itxasperriko omenaren ondoren Etxarrearen ordu txikiak arte segituko du festak. Erredakzioa ixterakoan 150 zeuden bazkaltzeko.



Orritzeko dantzariak Itxasperriko zelaian. ARTXIBOA

Egitaraua

11:00etan Egiarretako plazatik Uharteko erraldoi konpartzarekin Itxasperrira.
11:30etan Eltzagintza tailerra.
12:00etan Patroiaren omeneko meza, Arakilgo abesbatzarekin.
12:45ean Udalaren omenaldiak.
13:00etan Otamena.
13:45ean Mariatxiak Etxarrearen.
15:00etan Herri bazkaria, frontoian.
16:30ean Bazkalosteko animazioa.
17:30ean Mus, briska eta partxis txapelketak.
17:30ean Puzgarriak eta haurrendako herri kirolak.
17:30ean Mendiberrirekin dantzaldia.
20:00etan Sari banaketa.
21:30ean Barrikote afaria.
23:00etan Kontzertuak: Txep, Skarmentu eta Dj Plazan.

Goizean azoka, dantzak eta trikitilariak Itxasperrin.

>> Uharteko Arakil



Joan den astean Altsasun izan zen ur festa. INTXOSTIAPUNTA GAZTE GUNEA

Azken ur festa goxoa

Ostegunean, 21:00etan, Uharteko Arakilgo igerilekuan

Irurtzun, Etxarri, Altsasu eta Lakuntzaren ondoren, Uharteko Arakilgo igerilekuak hartuko du uda honetako azken festa goxoa. 12 urtetik gorako gazteei zuzendutako eskaintza da ur festa goxoarena. Ohikoak ez diren ordutan bainua hartu, txokolate beroa dastatu, musikaz gozatu, ur-jolasetan aritu eta afaria lagun artean hartzeko aukera izanen dute gazteek.

Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuko

du ur festa, Gozamenez programaren zati dena. Haren bidez gazteei une dibertigarriak eskaini nahi zaizkie. Sakanako Gozamenez Koordinakundeak gazteei sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini nahi die. Gozamenez programak gazteen artean sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo ezberdinen inguruko eztabaida sustatzea du helburu. Horregatik, publikoak eta ohikoak diren espazioetan sexualitatearen presentzia azaldu nahi du.

>> Altsasu

Azokako eskaintza berria: www.guaixe.eus eta bere komunitatea

www.guaixe.eus-ek Sakanako plaza digitala izan nahi du. Sakandarrek haren bidez albisteak jaso bai, baina haiek sortu eta mundu guztira zabaltzeko aukera ere eskaintzen du, euskaraz. Asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara, Altsasuko azokan web orria ezagutu eta komunitateko kide egiteko aukera izanen da

Sakandarrek, erakunde eta talde guztiek mundura zabalik duten leihoa da www.guaixe.eus. Bierrik fundazioko kazetariak sortutako albisteekin batera, Komunitatearen bidez edozeinek sortu eta zabaldu ditzake edukiak, euskaraz. Idaztea maite dutenek, idatziak; argazkilaritza zaleek irudi solteak edo galeriak, eta edozein talde eta erakundetako kideek haien jardunaren berri edozein modutan. Guaixe.eus-eko Komunitateak web orria bera irekiago eta parte-hartzaileagoa bilatzen du.

www.guaixe.eus-en sartu eta Komunitateko kide egiteko aukera erraz askoa da. Hala ere, bakarren batek Sakanako plaza digita-



Guaixe.eus eta Komunitatea azokan ezagutzeko aukera izanen da asteazkenean.

lean bere tokitxo hartzeko laguntza nahi badu, heldu den asteazkenean Altsasuko azokatik pasatzea du. Liburutegiaren zehar aldean izanen da Bierrik fundazioko kide bat ordenagailu

batekin eta behar diren azalpen guztiak emanen ditu. 11:00etatik 13:00etara, beraz, fruta, barazki, arropa, oinetako eta bestelakoan artean Guaixe.eus-en Komunitatearen eskaintza izanen da ere.

Etixerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

Konfiantzazko aseguratora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU



SAKANA

Aralarko aingeruak bere lagun berriak ezagutu ditu

Igandean Aralarko santutegian jendetza elkartu zen. Guraso, aitona-amonan, birramonaren bat, lehen-gusu-lehengusinak... Guztiek euren gertuko haurrak Aralarko aingeruaren lagun egiterakoan lekuko

izan nahi zuten. Aralarrekin duten loturaren luzapena, transmisioa ikusten baitute txikiengan.

Hala izan zen Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak antolatutako aurkezpenean. 12. edi-



NEREVA MAZKIARAN

zioa izan zen igandekoa eta 51 haur aurkeztu zizkieten aingeruari. San Migelen lagun izendapena eta haren bizi guztirako babesa eskatu zuten txikiendako haien gertukoek. Eta horren ziurtagiria pergamino moduan jaso zuten alde aurretik izena emanda zuten 32 aurrek. Gai nontzeko 19k agorrilaren 2tik aurrera jaso beharko dute santutegian.

FESTAK Bakaiku:

Garilak 24, ostirala

8:30ean Erronda musikatu herritik zehar. **13:00etan** Sakanako Aizkolari eskolaren erakustaldia.

13:30ean Auzatea Jubilatuko elkartearen eskutik.

17:30ean Altxorrenan bila herritik zehar.

19:30ean Salbea eta bezperak Santiagon.

20:00etan Bakaikuko Zortzikoa eta Apolori omenaldia.

Ondoren, Auzatea Gabriel Aresti Barnetegian eskutik.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.

00:30etik 3:30era Dantzaldia Gabenara taldearekin.

Garilak 25, larunbata

12:00etatik 14:00etara Haur parkea eskolako belardian: Puzgarriak, Segway,

Craybike eta zezen mekanikoa.

12:00etan Santio meza.

13:00etan Kontzertua: Alma Navarra eta Alma Latina, plazan.

17:00etatik 20:00etara Haur parkea eskolako belardian: Joku Trena, puzgarriak, Segway, Craybike eta zezen mekanikoa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

00:30etik 3:30era Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

Garilak 26, igandea

13:00etan Japoniar bonbak, plazan.

13:00etatik 14:30era Sakaranga txaranga.

18:30ean Gure Esku Dago tailerrak eta argazkirako prestaketa, plazan.

19:00etan Etorkizuna dantza taldea.

20:00ean Auzatea Bakarrekoez Elkartean eskutik.

20:30ean Gure Esku Dago argazkiak plazan.

22:00etan Zezensuzkoa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gabezin taldearekin.

00:30etik 3:30era Dantzaldia Gabezin taldearekin.

Garilak 27, astelehena

12:00etan Meza, adinekoen omenez.

13:00etan Bakaikuko haur eta gaztetxoek arteko herri kirolak plazan.

13:00etan Iñaki Bizkai musikariak giroturiko Auzatea.

14:30ean Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean. Ondoren, Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.

19:00etan Play Back erakustaldia, plazan.

22:00etan Herri afaria, plazan.

20:00etatik 22:00etara Diskofesta.

00:00etatik 2:30era Diskofesta.

Herri mugimenduaren egitaraua

Garilak 24, ostirala

20:00etan Urdaiazpiko apustua.

1:00etatik aurrera, BGA taberna DJak: DJ Gordon, DJ Txen...

Garilak 25, larunbata

19:00etan Herri erronka, plazan: Pilateseko neska vs. Udaletxea vs. Gazte Asanblada vs. Abesbatza vs. Mendizaleak.

20:30ean Dispersioaren aurka lau haizeetara.

22:00etan Gazte afaria.

Garilak 26, domeka. Mozorro eguna

20:00etan Orain hi, hausar hadi proba jolasa.

Aldi berean, Fotocoola: atera argazkia Gure Esku Dagoren alde.

Garilak 27, astelehena. Aizti eguna

15:00etan Gazte Bazkaria Aiztin.

18:00etan Motxaila Band elektrotxaranga herrian zehar.

Jantzi BGAKo kamiseta.

Antolatzaileak: Bakaikuko Gazte Asanblada, Sare, Gure Esku Dago, Ezker Abertzalea.

Olatzagutia:

Garilak 24, ostirala

11:00etan Hamaiaketakoa lan taldeetako parte-hartzaile eta udal langileendako Kultur Etxean.

12:00etan Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suziria Kultur Etxean.

Kalejira Itxabela txarangarekin. Erraldi eta buruhandiak.

Kartel lehiaketa sari banaketa.

Zapi banaketa aurten jaiotako haurrei.

17:00etatik 20:00etara Txapa tailerra.

Berdintasunaren alde festetan ere zure txapa egin. San Migel plazan.

18:00etatik 19:00etara Areto futboleko txapelketako kontsolazio finala. Futbito pistana. Antolatzailea: Maisuenea Gaztetxea.

18:00etan Erburua padel txapelketako finala. Padel pistana. Antolatzailea: Erburua kiroldegia.

19:00etatik 20:00etara Areto futboleko txapelketako kontsolazio finala. Futbito pistana. Antolatzailea: Maisuenea Gaztetxea.

20:30etik 22:00etara Araiako bandaren kontzertua San Migel plazan.

20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan. San Migel

plazan.

20:00etatik 22:00etara Emakumeen Mundu Martxaren photocall, San Migel plazan.

21:00etan Japoniar bonbak. Intsumisioaren plazan.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etatik 1:30etara Fitoscopiaren kontzertua (Fito&Fitipaldis eta Platero y Tú taldeen bertsoak) San Miguel plazan.

1:30etik 3:00etara Dantzaldia dj-rekin San Migel plazan.

Garilak 25, larunbata

9:30ean San Migel elkartearen goxua pilota txapelketako finalak eta sari banaketa.

12:00etan Bordetxe abere zirkoa, futbito pistana.

12:00etan Hamabietakoa, San Migel elkarteak eskainia.

13:00etan Etorkizuna dantza eskola, San Migel plazan.

14:30ean Haur bazkaria, Sutegi parkean (euria eginez gero Sutegi gimnasioan).

15:30etik 18:30era Ur parkea igerilekuan.

19:00etan La Conga kale antzerkia, Trapu

Zaharra, Sarasate plazan.

20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan San Migel plazan.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia NVM dj-ekin San Migel plazan.

21:00etan Japoniar bonbak. Intsumisioaren plazan.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etatik 4:00etara Dantzaldia NVM dj-ekin San Migel plazan.

Garilak 26, domeka. Santa Ana

9:30ean XLIV. pilota txapelketako finalak eta sari banaketa. Sutegi-San Migel elkartea.

11:00etan Txirrindulari eskolen proba Erburua kiroldegian inguruetan.

12:00etan Hamabietakoa Santa Ana elkartearen eskutik.

12:00etan Erraldi, buruhandi eta gaiteroek lagundurik mezara.

13:00etan Bermut kontzertua Raices Navarras, San Migel plazan.

14:30ean Untxi-kalderete lehiaketa Sutegi parkean. (Eurria egiten badu eskolako

pilotalekuan).*

14:30ean Jubilatuko adinduendako bazkaria Kamiogaina elkartean. Bazkalondan dantzaldia Luisiana bikotearekin.

16:30etik 18:30era Musika animazioa.

18:00etan Pomper ikuskizuna. Burbuil erraldiak eta burbuil festa, Sarasate plazan.

20:00etan Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan San Migel plazan.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Alaiki taldearekin, San Migel plazan.

21:00etan Japoniar bonbak. Intsumisioaren plazan.

22:00etan Zezensuzkoa.

23:00etan Korrontzi eta Dantzaire dantza taldea, futbito pistana. (Eurria eginez gero Udala pilotalekuan).

00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Alaiki taldearekin, San Migel plazan.

Garilak 27, astelehena

11:30etik 13:30era Jolas parkea, futbito pistana. (Eurria eginez gero Erburua kiroldegian).

12:00etan Hamabietakoa Kamiogaina

elkartearen eskutik.

13:00etan Bermut kontzertua Sakanako Trikitixak taldearekin, San Migel plazan.

14:30ean Herri bazkaria, Sutegi parkean. (Eurria eginez gero Eskolak frontoian).

16:30etik 19:00etara Jolas parkea, futbito pistana. (Eurria eginez gero Erburua kiroldegian).

19:00etan A tu bola kale antzerkia, Circo Dabintxi. Sarasate plazan.

20:00etatik 22:00etara Disko festa, San Migel plazan.

21:00etan Japoniar bonbak. Intsumisioaren plazan.

21:00etan Hegaluzte parrillada, Vicente Argomaniz plazan.

22:00etan Zezensuzkoa.

00:00etan Gaiztoak kale ikuskizuna, Erburua kiroldegitik abiatuta.

1:00etatik 3:00etara Disko festa, San Migel plazan.

* Parte-hartzaileek 11:00etan Sutegi gimnasioan joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera. Kaldereteak 14:30erako bukatu behar dira epaimahaia erabaki ahal izateko. Bazkaltzeko mahaia, bankuak eta ardo eskainiko dira.

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

9 lagunendako

TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025

IRURTZUN

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

Bakaiku

Auroroak Tafallako kontzentrazioan

Nafarroako auroroen 39. topaketa hartu zuen Tafallan igandean. Nafarroako eta inguruko erkidegoetako 77 auroro talde elkartu zituen topaketak. Tartean Bakaikukoak. Guztira 4.000 pertsona inguru. 7:30ean guztiendako gosariarekin hasi zen egitaraua. Harreraren ondoren auroro taldeak Tafallan, Barasoainen, San

Martin Unxen eta Uxuen barna aritu ziren kantari. Guztiak berriro Tafallan elkartu eta han meza eta bazkaria izan zen denendako.

Harrera egiterakoan Tafallako alkateak euskara eta gaztelania tartekatu zituen. Euskaraz aritu zen hiruetan auroroen zati handi batek piztu egin zion.

» Irurtzun



Uda tailer eskaintza euskaraz

Aizpeak, Irurtzongo euskaltzaleen topaguneak, agorrierako hiru tailerreko eskaintza prestatu du. Haurrei zuzendutakoa da lehen eskaintza. Agorriaren 3tik 14ra arte, 11:00ak eta 13:00ak bitartean, joko, tailer eta bestelakoekin primeran pasatzeko aukera izanen dute Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan ari direnak. Egun eta garai berean, Udako konkistatzailea esperientziarekin gozatuko dute izena ematen duten LHko 3. eta 6. mailan ari diren ikasleak. Hilaren 30era arte eman daiteke izena Martxueta liburu-dendan 20 euro ordainduta.

Agorriaren akaberan, 25etik irailaren 2ra arte, botxa txapelketa izanenda, Aizpeak antolatuta. Irurtzongo euskaltzaleen topaguneak antolatutako azken tailerrak Irurtzun Tebistarekin (ITB) du lotura. 7 eta 14 urte bitartekoei zuzenduta dago tailerra. Agorriaren 31 eta irailaren 8a bitartean, 11:00etatik 13:00etara, ITBekin zerikusia duen guztia ikasteko aukera izanen dute. Parte hartzeko Martxueta liburu-dendan eman behar da izena, agorriaren 17tik 26ra bitartean.

» Ihabar

Pinu lotea enkantean

Ihabarko Kontzejuak enkante bidez larizio pinuko lotea saldu nahi du. 3.927 oinek osatzen dute eta 1.640,2 m³ zur eta 801,2 m³ egur egiten dute. Mintegiberri, Mintegizar, Arrialdak, Ganbelatxo, Zubimakur eta Txerri txoko parajeetan daude lotea osatzen duten pinuak. Loteagatik Ihabarko Kontzejuak 44.133,24 euro eskatzen ditu. Interesatuak euren eskaerak hilaren 31ra arte aurkez ditzakete Arakilgo udaletxean, Irurtzunen.

» Urdiain

Toponimoak mapan jasoak

Mariano Galartza eta Bingen Galartza osaba-iloben lana da Urdiaingo etxe askotan dagoen herriko toponimoen mapa

Aurrenak bilketa lana egin du eta bigarrenak mapan txukun jarri. Emaizta Urdiaingo Udalarari eman diote. Apirilaren 17an aurkeztu zuten jendaurrean eta asko izan dira udaletxetik hura eskuratzerara pasa direnak. Mapa gustuko dute urdintarrek.

Toki izenekiko zaletasunaz galdetuta “tabernetako kontua” aipatu digu Galartzak: “lagunekin eta, zeredozeregin beharko dugu... Nik, nolabait, udaletxean lan egiten dudana, beste batzuek baino erraztasun gehiago dut. Harreman gehiago toponimiarekin eta gauzekin; eta holaxe”. Basoen mapa baten kopia aterata eta han izenak jarri.

Galartzak hainbat urte eman zituen horrela, toponimoak Urdiaingo mapabatean idazten. “Orain dela urte batzuk hasi nintzen eta gero utzi egin nuen. Aurreko alkatearekin, Sebastian Aristizabalekin, horiegin beharra zegoela eta aipatzen zuten eta horrela hasi ginen”. Aurkeztu ondoren inorez zaiotoki izen gehiagoren berri emanez joan.

Iturriak

Toki izenak biltzen etxean hasi zen Galartza. Aitarekin batera eta bestera joan eta non zeuden galdetzen zion, berak paperean jasotzeko. Horrela hasi zuen toki izenen bilketa Galartzak. “Dezente manejatzen zuten”. Gero kaleko jendeare-



Urdiaingo ikuspegia Irurritako gaztelutik.

kin segitu zuen. Haiek eman zizkieten toponimo gehienen berri. Baitazuen du ere: “nik ustenuen toponimo bat toki batean zegoela eta, justu, beste batean behar zuten”. Gainera, “sekula entzun gabe neuzkanak ere” jakinarazi zizkieten.

Galartzak beste iturri batzuetara ere jo zuen bere bilketa lanean, esaterako, eskriturak edo katastro zaharreko paperetara. Nafarroako Gobernuaren toponimia liburuxkan toki izen zaharagoak eta teknikoagoak ere opatu ditu. Migel Angel Sagaseta apaiak ere datu mordo eman zizkion bere langintzan aurrera egin zezan. “Berezienak dira, aspaldiko toki izenak direlako; 1.200 urte ingurukoak eta halakoak”.

Toponimia ere berri egiten da eta toki batek izen bat baino gehiago izan ditzake. “Toki batek gaur izen bat du, duela 300 urte beste bat eta lehenago beste bat”. Paperen bidez jasotako toponimotan idazleak zeresana zuela gogorarazi digu: “notarioa edo idazkaria euskalduna bazen eskrituran txukunago agertuko zen. Euskaraz ez bazekin, ulertzeko ere...”.

Itxura ematea

“Mapa zahar batean toki izenak kokatzeko gai zen, baina gero mapa nola egin ez nekien”, aitortu digu osabak. Horregatik, laguntza eske Bingen ilobarengana jo zuen. “Izen pila batekin etorri zitzaidan, modu txukun batean jarri nahi zuela esa-

nez. Ordenagailuan egin zitekeela esan nion”.

Pixkanaka izenak idazten hasi ziren, “hasieran ordu dexente pasa genituen” azaldu du Bingenek. Internetetik Urdiaingo ortofotoa deskargatu zuten, Nafarroako Gobernuaren Sitna web ataritik. “Mugak eta dena Internetetik deskargatu genuen, beraz, nire lana erraza izan da”. Harengainean toki izenak gehitzen joan ziren osaba-ilobak. Bingenek aitortu digu herriko toki izen gutxi ezagutzen zituela, baina lana eginda “batzuk gelditu zaizkio”. Ordenagailu pantailan ikusi dituen toponimoak tokian ikusteko lana “pendiente” du Bingenek. Eginda-ko lanarekin “pozik” gelditu da.

+www.guaixe.eus

» SAKANA

Txartel Freskagarriak sariak banatzen segitzen du

Heldu den osteguna bitartean BeleixeGuaixe txartelak abantailak eskaintzen dituen establezimenduetan erabiltzeagatik sari eder baten zozketan sartuko dira erabiltzaileak

Atzo egindako zozketan Yoli Fernandez de Garaialde izan da sari-tua. Altsasuarrak Arbizuko Olatzea jatetxean bi lagunendako bazkaria, Lakuntzako Ederne ileapaindegia eta estetika zentroan makillaje sesioa eta Urbasa Abentura parkean bi lagunendako

sarrerak irabazi ditu.

Heldu den ostegunean antzeko beste sari bat zozketatuko du Txartel Freskagarriak. Saria eskuratu nahi dutenek erosketak egite-rakoan BeleixeGuaixe txartela erakutsi beharko dute. Sakanan 80 establezimendu baino gehiagotan dute aukera abantailak lortzeko. Haietakoren batean edo gehiagotan edozein erosketa egin ondoren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa idazteko papera jaso-

ko du. Haiek emanda, zozketan zorte ona izatea besterik ez da falta.

BeleixeGuaixe txartela Sakanako euskarazko hedabideak sustatzen dituen Bierrik fundazioa laguntzeko da, baita ibarreko merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuak. Haietan erosketak eginez Sakanako ekonomiari bultzada ematen zaio. 1550 pertsona dira txartelaren jabe. Hura eskuratu nahi dutenek 948564275 eta 948562107 telefono zenbakietara hots egin edo www.guaixe.eus

Saria eta zozketa data

Garilak 30, osteguna
Altsasuko Iru bide jatetxean bi lagunendako bazkaria.
Etxarriko Lizardi estetika zentroan aurpegiko lifting-a.
Urdiaingo Errotainen 2 lagunendako zaldi ibilaldiak.

atarian sartu behar da. Urteko 50 euro ordaindu behar dira.

PAKO
HARATEGIA
Ongi pasa festetan!
Kale Nagusia, 50
OLAZTI
948 562 858

KOTXKO
Taberna
Ongi pasa festetan
bakaikuarrak!
948 562 607
627 585 414
Bideberrialde
Bakaiku

Uztailak
26,
igandea
01:00etan
CLINKER
TABERNA
Ongi pasa jaietan!
Kontzertua
948 56 23 74 · Nagusia, 1 · Olazti
www.facebook.com/restauranteclinker

Arakil ibaiaren egoera

Kalitate ezberdineko bost eredu

UEZ indarrean jartzerakoan ibai arroak ur masa homogeneousan banatu zituzten. Arakilen arroak bost zati ditu: Arakil, iturburutik Altzaniarekin bat egin arte; Altzania, iturburutik Arakilekin bat egin arte; Arakil Altzaniatik Larraun ibaiarekin bat egin arte; Larraun eta Arakil, Larraunen bategitetik Argaraino.

Arakil ibaiaren kalitate oneko eremuak hasierakoa eta bukaerakoa dira (Oskiatik behera okertu egiten da eta 2027ra arteko luzapena eskatu dute). Okerrena, berriz, Altzania eta Larraun arteko ibai zatia da. Horregatik, 2027ra arteko luzapena eskatu da. UEZek ezarritako helburuak Altzaniak eta Larraundik Arga bitarteko ubelde zatiak betetzen zuten 2009an. Abendurako bi horiei iturburutik Altzania bitarteko ibai zatia gehituko zaie. Aurreikusia ez bazegoen ere, litekeena da Larraun ibaiak ere UEZen helburuak abendurako betetzea.

Leziza erreka ezik, gainontzeak ur masatzat hartzeko nahikoa tamainarik ez dute. Erreken kalitatea jasaten duten “ganadu kargaren arabera” izanen dela argitu digu Perezek.

Laginak

Nafarroako Gobernuak Urdia-



Ziordiko uharka ibaiak emari handia izan duen batean.

nen ubeldearen kalitatea neurtzeko estazio automatikoa du, etengabe laginak hartzen ditu. Bestalde, gobernuko langileek ibaiko ur laginak hartu eta laborategira eramaten dute. Uren kalitate biologikoa eta fisiko-kimikoa aztertzen dute horrela. Lehenari dagokionez, urtean bitan, udaberriaren eta agorraldian, hartzen dituzte laginak. Sakanako sei herrietan ur laginak 1994 eta 2014 artean hartu zituzte: Errotz (hasieran Irurtzundik behera), Etxarren, Uharteko Arakil, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Ziordia. Neurketa horien arabera uraren kalitatea, altua,

ona, ertaina, eskasa eta txarra izan daiteke.

Errotzen ibaiko ur laginak hartzen 2003an hasi ziren. Orain arteko batezbestekoak uraren kalitate ona ematen du. Baina 2013an eta 2014an lortu ziren ezarritako helburuak. Gainera, joan den urteko agorraldian maila altua lortu zuen.

Ur kalitate ertaina dute Etxarrengolaginen batezbestekoa. Laginak hartzen hasi zirenean balioak altuak izan ziren, baina gero kutsaduragatik behera egin zuen. 2011 eta 2014 artean UEZen kalitate helburuak lortu ziren. 1995etik ez zen halakorik gertatzen.

Uharteko Arakilen uraren kalitatearen batezbestekoa ertaina da. 2005-2006tik aurrera hobekuntza handia izan zen, nahiz eta 2012ko udaberriaren bezala kutsadura aldiak izan. 2014an Uharteko ur laginen kalitatea ona eta oso ona izan zen. Etxarri Aranatz 1999an hasi ziren laginak hartzen eta batezbesteko kalitatea ona da. Joan den urteko udaberriaren altua izan zen eta agorraldian ona. 2009tik hona hobekuntza handia izan da.

Emaitza okerrean jasotzen diren tokia da Altsasukoa. Historikoki kutsadura arrastoak jaso dira eta

ubeldearen ur kalitatea ertaina izan da Altsasun. Baina 2006tik hobera egin du eta UEZen helburuak bete dira. 2014an Altsasuko laginetan kalitatea ona zen. Ziordian hartutako laginetan uraren kalitatea ona izan da.

Uraren kalitate fisiko-kimikoa

Hori aztertzeko laginak zazpi herrietan hartzen dira Sakanan: Errotz, Etxarren, Hiriberri, Uharteko Arakil, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Ziordia. 2001etik presentzia gehien duen kutsatzailea fosfata da. Urdiain-Altsasuko araztegiaren ondoren handitu egiten da. Fosforo kopuru handiak atzeman dituzte Uharteko Arakilen eta Etxarri Aranatz, Altsasuko eta Etxarriko araztegiaren isurien ondoren. Agorraldietan nabarmendu egiten da fosforo kutsadura. Larraun ibaiaren emariak kutsagarrien disoluzioan laguntzen du.

Adierazle fisiko-kimikokoak kontuan hartuta joan den urtean Arakil ibaiaren kalitatea honelakoa zen: oso ona Errotzen, Altsasun eta Ziordian; ona Hiriberri, Uharteko Arakilen eta Etxarri Aranatz eta, azkenik, Etxarren kalitatea moderatua zen (amonio kutsagarriagatik). 2010etik hobekuntza sumatu da.



Hiru isuri mota

Ibaiak jasaten dituen presio nagusiak hiri eta industria isuriak (isuri puntualak) eta abeltzaintzako isuriak (isuri lausoak) dira. Azken horien artean ibaira botatzen diren mindak. Azken 15 urteetan hiri isuriek ez dute aldaketa handirik izan, Perezek azaldu digunez. Industria arlokoetan, ordea, hobera egin du, “enpresen jardueraren funtzioaren arabera eta kontrola handitzearekin metal astunen edo nutrienteen kutsadura karga txikitu egin da”.

Neurriak

Horiek murrizteko industria isurien kontrola eta ikuskaritza aipatu dizkigu Perezek. Isuri kutsakorrak murrizteko ere akordioak eta saneamendu tasak aipatu dizkigu. “Horrela elikagaien isuria murriztuko genuke, bereziki fosforoa, hori baita gure ibaien eutrofizazioaren faktore nagusia”. Hau da, isuriek ibaian sustantzia elikagarrien kopurua handitzen du eta horrek fitoplankton gehiegi egotea dakar.



Lertxuna ubeldean, Uharteko Arakilen.

Herritarren ekarpena



Ibaien kalitatea hobetzeko herritarrek egin dezakegunaz galdetuta Perezek bi arlo aipatu dizkigu. Batetik, uraren erabilera eraginkorra. “Horrek ura aurrezteko dakar eta, batez ere, udan ur gehiago izateko aukera dakar”. Bestetik, hondakinen bereizketa egitearen garrantzia nabarmendu du. “Esaterako, olioak arraskatik behera ez bota. Horrela, araztegiak hobe funtzionatzen dute eta eraginkorragoak dira”.

Arakil ibaiaren egoera ekologikoa hobetzeko funtsezko neurrietako bat dagoen uren araztea hobetzea da. Herrietako ur beltzen arazteaz arduratzen da Nilsa enpresa publikoa eta 2016-2021 aldirako planifikazioa egin berri du. Ziordian araztegia egitea aurreikusten da. Baita 250 biztanle baino gutxiago dituzten herrietako arazketa hobetzea ere. “Baina dauden araztegiak hobetzea ere aztertu beharko litzateke” Perezek arabera. Kutsadura murrizteko beste aukera bat fosforoaren murrizketa izan litekeela argitu digu, “baina horrek ekonomia-kostu handia luke”.

Uharkak eta basoak

UEZek ibaiaren jarraipena ere kalitate hidromorfologiko irizpide gisa hartzen du. Perezek esan digunez, “presa bat jarraipena eta arrainen migrazioa eragozten duen oztopo bat da. Gainera, uharkak ura biltzen eta gelditzen dute eta horrek kalitate fisiko-kimikoko arazoak sortzen ditu. Eta zenbait kasutan, uholdeak”.

Horregatik, Nafarroako Ur Zerbitzuko buruak, “ahal den neurrian, eta batez ere erabiltzen ez diren uharken kasuan”, haiek botatzea eskatu du. 2013an Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin Uharteko Arakilen botatzailearen di-

bidea eman du. “Presa erabiltzen bada, arrainen jarraipena izan dezaten eskalak edo bestelako neurriak hartu beharko dira”.

Ibaiaren hidromorfologia kalitatea aztertzerakoan UEZek ezarritako jarraipen parametroekin lotuta daude ibai ertzeko basoak. “Gainera, ertzeko landareak isuri lausoeekin filtro berde gisa aritzen da. Horrekin batera, udan uraren tenperaturaren erregulatzailea da landaretza hori eta haiek oxigenatzen laguntzen du. Zenbat eta estuago ibai, orduan eta eragin handiagoa”. Beraz, ibai bazterreko landaretza leheneratzeak ubeldeen kalitatea hobetzen du.

Arakil ibaiaren egoera

Bere bidean, ura gero eta hobeto

Uraren Esparru Zuzentaraua onartu zenez geroztik Arakil ibaiaren egoerak onera egin du, baina kalitate eskalan moderatua da, azken aurreko maila. Hala ere, uren araztean, ibaitik oztopoak kentzen eta ertzeko landaretza lehengorazten indarra egin behar da. Udan euri gutxiago egitean kutsatuago dago ibaia

Ibai, erreka, laku... ur masa guztiak egoera ekologiko onean nahi ditu Europako Batasunak eta, horregatik, onartu zuen Uraren Esparru Zuzentaraua (UEZ). Europako Batasunak darabilen egoera ekologikoaren kontzeptuak, uren kalitatea eta urari lotutako ekosistemak hartzen ditu. Beraz, uren garbitasunaz aparte, ibai ertzeko basoak eta uretan eta inguruan dauden animaliak eta landareak hartzen ditu kontuan. Eskakizun zorrotzak ditu zuzentaruak, eta ur masen egoera ona izan dadin 2015eko abendura arteko epea eman zuen.

Sakanako ur masen egoeraren berri jakiteko Nafarroako Gobernuko Ur Zerbitzuko Cesar Perez Martinengana jo dugu. Hark argitu digunez, Nafarroako Gobernuaren kontrol sarean, 2000. urtean Sakanan, kalitate fisiko-kimikoan arazoak zeuden Arakil ibaian. Orduan fosforo, amonio eta

oxigeno eskaera biokimikoaren parametroek gaztigatu zuten ubeldeko ura ez zegoela ongi. Bestalde, "biologia aldetik, adierazle biotikoen sareak kutsadura arazoak agerian uzten zituen.

Sakana guztian Altsasuzen eta da kalitate okerreduen puntua". Perezek argitu digu zergatia: "ibairean populazio eta industria gehien biltzen duelako eta, ondorioz, hiri- eta industria isuri handiagoak ditu".

Abiapuntua

Perezek azaldu digunez, "UEZ indarrean sartu aurretik, ibaiaren kalitatea ia bakarrik adierazle fisiko-kimikoen bidez neurtzen zen. Gainera, giza erabilerari lotuta egiten zen, esaterako, ur hornidurarako edo bainua hartzeko". UEZ asmo handiko helburuak zehaztu dituela azaldu du Perezek: "hiru adierazle ditu. Ohiko fisiko-kimikoez aparte, biologikoak (fitoplanktona, makrofitoak, ornogabeak, arraiak) eta hidromorfologikoak (erregimen hidrológico, jarraipena eta morfologia baldintzak).

Zuzentaraua garatzeko Ebroko Hidrologia Plana egin zen 2013an. Han jasotzen denez Arakil ibaiaren egoera ekologikoa moderatua zen. Hau da, azken aurreko mailan dago Arakil ibaia. Izan ere, ubeldeen kalitatea neurtzeko eskalak lau maila ditu: eskasa, moderatua, ona eta oso ona. UEZ-en helburua azken bietako bat lortzea da. Plana berandu onartu zenez, 2027ra arteko luzapena eskatu da, aurtengo abendurako ubeldeak ez duela lortuko egoera onean egotea.

Azken urteetan Sakanako ur masen egoerak hobera egin du. "Hobekuntza handia nabaritu zen Urdiain-Altsasuko araztegia martxan jartzean (1995-1996). Makro-ornogabeen sareak (intsektuak, krustazeo, muskuilu eta anelidoak) 2007tik hobekuntzak eman ditu. Hala ere, Perezek esan digunez, fosfato eta fosforo total arazoak izaten segitzen du. Altsasun, gainera, 42 laginketatik 12k besterik ez dituzte betetzen UEZ-en



Arakil ibaia Ihabar eta Hiriberri artean.

makro-ornogabeen irizpideak. Emaizta positibo gehienak azken urteetan eman dira.

Sakanan UEZ-en helburuak lortzeko bi arlotan egin beharko da

indarra. Lehenik, uren araztea hobetu; "isuri puntualen fosfororen intzidentzia, bereziki, eta isuri lausoaren hobetzea, bestetik". Bigarrenik, ubelde eta erreken

jarraipena hobetu beharko da, "oztopoak pasatzeko moduak eman eta ibai ertzeko landaretzaren egitura hobetu, auto erregulazioa hobetzeko".

Arakil ibaia klima aldaketaren adierazle?



Aukera hori mahai gainean jarri digu Perezek. Nafarroako Gobernuak ibaiaren emaria neurtzeko estazioa du Etxarren. 25 urte darama datuak jasotzen. Ubeldearen urteko batezbesteko emaria 9,4 m³/s-koa (9.400 litro/s) da. Baina udan gero eta euri gutxiago egiten du. Agorrileko batezbesteko emaria 0,6 m³/s-

koa da (600 litro/s). Ilbeltzekoa, berriz, 17,7 m³/s-koa (17.700 litro/s).

Perezek berak argitu digu ubeldearen udako emariaren txikitzea "gutziz naturala" dela. "Nahiz eta neguko euriteen ondorioz urteko emariaren batezbestekoa handitu, azken urteetan antzeman dugu udan ubeldearen agorraldiak gero

eta nabarmenagoak direla. Klima aldaketaren adierazle izan liteke hori". Baina bestelako ondorio zuzen bat du udako euri eskasiak: "emari natural eskasagoarendako gehiegizko isuri kutsakorrek jasotzen ditu ubeldeak. Emari eskasarekin isuriendiluzioa txikiagoa da eta, beraz, kalitate orokorra jaitsi egiten da".

Uraren Esparru Zuzentaruaren kronologia

2.000 Europako Batasunak Uraren Esparru Zuzentaraua publiko egin zuen.

2.003 Estatuak euren legedietan barneratu zuten UEZ. Espainian, abenduaren 30eko 62/2003ko Legearen 129 artikulua bidez.

2009 2009-2015 aldirako Hidrologia Planek abendurako onartuak behar zuten.

2013 Ebroko Hidrologia Plana onartu zen eta hura ezartzeko luzapena eskatu zen.

2015 Urteakaberan Ebroko Hidrologia Plan berria onartu koda, **2016-2021** aldirako Garagarzaroan jendaurreko epea bukatu da.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

>> Etxarri Aranatz

Hogeita lau orduz libre

Askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen aldeko lana nola indartu hausnartu eta zehazten hasiko dira gaur, 21:00etatik aurrera, plazan eginen den egun osoko kanpaldian

Libre dinamikak deituta 24 orduz kanpaldia eginen da Etxarri Aranazko plazan. Denbora tarte horretan, “dena ETA da ildo judiziala” salatuko dute, “Espainiak Euskal Herriaren askatasunaren aldeko lana espertxeratzeko eta galgatzeko erabiltzen du”. Horren harira, “kartzela zigorrak, herriko tabernak konfiskatuak” izan direla gogorarazi eta udazkena “bero” datorrela ohartarazi nahi dute: “lastailean Aritz Ganboa de Migel Askapena auziaren barruan epaituko dute eta Patxi Arratibel Gartziandia eta Joxe Aldasoro Jauregik 8 eta 9 urteko espertxe zigor eskaerak jaso dituzte”.

Horretaz guztiaz informatzeaz



Libre dinamikako kideak 24 orduko egitaraua aurkezten.

aparte, Libre dinamikak “independentziaren, internazionalismoaren, presoaren eskubideen eta

sozialismoaren aldeko lanak terrorista eta kriminal bihurtu dituztela” salatu nahi dute. Baita gaz-

tigatu ere: mozal legearekin “denoksartugaitzute kriminalen zakuan”. Espertxean den Fran Bal-

daren eta espertxe atarian egon litezkeen lau sakandarren berri zabalduko da kanpaldiaren bidez.

Bestetik, 24 orduetan “libre izateko behar ditugun tresnei buruz pentsatu eta tresna horiek sortzen” hasiko dira. Izan ere, dinamikako kideen iritziz, “Espainiako frankismoaren aurrean guk nahi duguna zehaztu eta horren bila joatea besterik ez zaigulako geratzen”.

Egitaraua

>> **Garilak 24, ostirala**

21:00etan Kanpaldiaren hasiera, plazan.
22:00etan Dokumentala: Aske gunea, desobedientzia bete-betean.

>> **Garilak 25, larunbata**

9:00etan Gosaria.
10:00etan Propaganda tailerra: pankartak, kartelak ordenagailuz, panelak...
12:00etan Ideia ekaitza talde dinamika.
14:00etan Bazkaria.
16:30etan Kafe tertulia: mozal legea, epaiketak, desobedientzia...
18:00etan Desobedientzia eta bideo tailerrak.
20:00etan Herriak libre, Aritz libre.
21:00etan Kantaldia.

SAKANA

Asteazkenean iritsiko da Sakanara AHTren kontrako bizikleta martxa

Mugitu! desobedientzia mugimendua antolatuta bihar hasiko da AHTren aurkako III. Bizikleta-Martxa desobedientzia. Heldu den larunbata bitartean, zortzi egunetan, *Lurraren alde bizi-bizi* leloa zabalduko dute Castejon eta Gastetiz artean. Mugitu!-k sustatutako tropela asteazkenean sartuko da Aizkorbetik Sakanara eta ostegunean Altsasun utziko du ibarra. Martzarekin batera, hitzaldiak antolatu ditu Mugitu!-k Sakanan.

Antolatzaileek pedal kolpeka “AHTren zentzugabekeriazko egitasmoaren salaketa” egiten dute; “lurraren suntsiketara, gizarte ezberdinkeria eta egun beharrezkoak diren premia ekonomikoaren xahuketa ekartzen dituelako”. AHT bezala, fracking, errausketa edota autopista elektrikoa egitasmoak “finean lurra suntsitzen duen eta dirua bizitza sozialaren erdigunean jarzen duen egungo eredu kapitalis-



Duela bi urte ere Sakanatik pasa zen AHTren kontrako martxa.

ta eta jasanezinaren isla dira”. Horren aurrean, “borrokatu eta, jadanik hasita dauden bide berriei ekinen diegu, eraldaketarako bidea desobedientzia izanik”.

AHTri dagokionez, proiektuak “porrot” egin duela salatu dute Mugitu!tik: “milioiak xahutzen

ditu eta oinarrizko beharrian sozialetara bideratu beharko lirartekeen partidak murriztu beharra dakar, kalte itzela eraginez gizarte, ekonomia eta ingurumen arlotan”. AHT bideragarria ez dela eta gizartearendako inolako onurarik ez dakarrela nabarmendu

Egitaraua

>> **Garilak 29, asteazkena**

Arazuri-Irurtzun-Etxarri Aranatz

9:30ean Arazuritik abiatzea.
13:30ean Bazkaria Irurtzango Pikuxar elkartearen.

17:00etan Irurtzundik abiatu.

19:00etan Etxarri Aranatzera iritsi.

20:00etan Mahai-ingurua kultur etxean.

Merkatu alternatiboa ala alternatiba merkatuari? Hizlariak: Galdakaoko komunala, Kataluniako kooperatiba integralak, Lakabe eta Errekaleor.

>> **Garilak 30, osteguna**

Etxarri Aranatz-Altsasu-Langraitz (trenetza)-Goegi

9:30ean Etxarri Aranatzetik abiatzea.

11:00etan Altsasun porlandegiko errauskailuaren inguruko solasaldia 3

Mugak batera plataformak emanik

17:18etan Altsasuko apeaderotik trena Langraitzeraino.

18:02etan Langraitzetik, bizikletan,

Goegi-iruntz abiatzea.

20:30ean Goegira iritea.

22:30ean Kontzertua D' Capricho

Kubako taldearekin.

dute. Horregatik, lehenbailehen lanak gelditzea eskatu dute.

Hualde, behin behinean, Nafarroako EAJko buru

Manu Aierdi Olaizolak Nafarroako Gobernuko ekonomia lehendakari-orde kargua hartu du gaur. EAJko Napar Buru Batzarreko (NBB) buru ere bada. Legez bi karguak bateragarriak dira, baina alderdiak bere estatutuetan halakorik ez izateko mugak jarri zituen. EAJtik jakinarazi digutenez Aierdik astelehenean utziko ditu ardurak. NBB lehendakari gabe geldituko da, eta bere idazkariak lehendakariaren funtzioetako batzuk bere gain hartuko ditu, behin behinean. Beraz, Unai Hualde Iglesias izanen da ardura horiek hartuko dituen. Hori asteartean aztertuko du NBBk.

Igandean bere 120. urteurrena ospatu zuen alderdiak udaberri berri tuko ditu bere Buru Batzarrak. Uda-berri arte denbora gutxi gelditzen denez, NBBk EBBri proposatu dio hautaketa dagokionean egitea, udaberri, eta bitartean idazkariak behin behinean ardura batzuk gehiago izatea.

>> Etxarri Aranatz

ETBko Gutarrak Kanporean Etxarrin

Heldu den asteko ostegunean eta ostiralean Etxarri Aranazko kanpinak ETBren Gutarrak Kanporean saioa grabatuko du. Bai kanpina bai Etxarri Aranatz bera saioaren platu bihurtuko dira bi egun horietan. Udangutar ezagunak gutar berri bila ibiliko dira Euskal Herriko kanpinitan barna. Txurru txofer dutela, gutarren furgoneta batera eta bes-



tera mugitzen ari dira eta Etxarri Aranazko kanpina geldialdi bat izanen da. Gutarrak bi taldetan

banatuta daude eta elkarrekin lehiatzen ibiliko dira kanpina talderik onena bilatzeko.

Dokumentala plazan

Gaur, Aske Gunea, desobedientzia bete-betean, 22:00etan, plazan

11 borroka dokumental zikloak, gaurko despedidan aske guneen eta haien desobedientzia ereduaren inguruko lana ikusteko aukera izanen da. Atzo Saharako herriaren borroka berri izan zen. Zikloa Irlandako preso errepublikarren borroka buruzko dokumental batek zabaldu zuen.





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora



Oroigarriak
egiten ditugu

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Erosi
Trikitixa alokatu edo erosiko nuke. Aurtun klaseak jasotzen hasiko den ume batentzako. Deitu 647 37 02 41.

Higiezinak
LOKALAK
ERRENTAN EMAN

Dorrauko jaietako bi taberna alokatzen dira.
Jaiak abuztuaren 13tik 16ra izanen dira. Interesatuak dei dezala 628 85 58 27 edo 637 33 13 47 telefonoetara uztailaren 30a baino lehen.

Ihabarko Denon Kabia elkarte. Festetan alokatzen da. Abuztuaren 28tik 30era. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 14a baino lehen telefono honetara: 670 95 98 75.

Oparitakoak
Katakumeak. Oparitzen ditugu. Tel: 661 52 04 04 - 948 46 72 48

Lehiaketa
Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak
Tartalaria espexera ez joateko. AHTren kontrako tartalari bati Espainiako auzitegi Nazionalak 14.400 euro eskatzen dizkio, edo bestela espexera bidaliko du. Sostengu ekonomikoa: 3035.0068.08.0680058591 Basagure taldea (Laboral Kutxa) kontu korrontean.

Odol-emaileak. Irailaren 3an arratsalde, Irurtzunen.

Zozketa. Saharako haurrak ekartzeko laguntza zenbakien zozketan, hauek atera dira: 0833 -1130 - 3153 eta 2824.

Bertso udalekuak. Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekuean. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: http://www.bertsosale.eus/eu/bertso-udalekuak.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral Kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural Kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural Kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-

tara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosofinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixeko txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozipina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko maki-

nak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramana: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztebete ondora, irrata zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenean Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazte-ria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzeko helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

JAIOTZAK

- Hegoi Ruiz de Alegria Zabala,** uztailaren 15ean Altsasun
- Iñaki eta Unai Camuel Zabala,** uztailaren 17an Olaztin.

Heriotzak

- Cristobal Mozo Marin,** uztailaren 3an Unanun.
- Jose Maria Marin Garcandia,** uztailaren 14an Unanun.
- Bias Crespo Ferrer,** uztailaren 14an Altsasun.
- Jose Luis Irisarri Amondarain,** uztailaren 19an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Iparraldeko ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juri-dikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

TXIRRINDULARITZA

ERBITIREN TOURRA: Tourreko Alpeetako atzoko emaitzen faltan, Chris Froome (Sky) zen liderra, Movistarreko Quintana eta

Valverde atzean zituela. Movistar, tartean Hiriberriko Imanol Erbiti, lan handia egiten ari da Froome estutzen, baina zaila dute.

Pilota

Olazti txapelaldunaren bila

XLIV. San Migel Pilota Txapelketako eta San Migel-Sutegi Txapelketako finalak jokatuko dira Olaztiko festetan, larunbatean eta igandean

Olaztiko San Migel elkarteak eta Sutegi klubak antolatuta, aurten 43. San Migel Pilota Txapelketa jokatuko da. Txapelketa apirilaren bukeran hasi zen eta final handiak asteburu honetan jokatuko dira, Santa Ana festetan. Zehazki, larunbatean 43. San Migel Txapelketako finalen txanda izango da, pilotari helduak ariko dira, eta igandean San Migel-Sutegi txapelketako finalen txanda, pilotari txikiak. Olaztiko pilota txapelketa hau txapelketa betetera da -aurten 43. edizioa jokatuko da- eta herrikoia aldi berean. Puntako afizionatuen eta maila herrikoian aritzen diren pilotarien topaleku.

Maila nagusian 52 bikote eta txikienean 194 bikote

Olaztiko txapelketetan parte hartzea bikaina izan da. 43. San Migel txapelketako maila gorenean, guztira 52 bikote lehiatu dira, gehienak nafarrak, gipuzkoar eta arabar batzuk izan ezik. Larunbat goizean finalak jokatuko dira, 5 final guztira. 22 urtez azpiko afizionatuen mailan, Murgiondok eta Mariezkurrenak Txiapuso eta Aranguren izango dituzte aurkari. Aurreko urtean 22 urtez azpi-



San Migel Pilota Txapelketako 2014 urteko finalistak.

koan Ansak eta Legarretak jantzi zuten txapela. Horretaz aparte, lehen mailako, bigarren mailako, hirugarren mailako eta lau t'erdiko finalak jokatuko dira.

Txikienean txapelketan Euskal

Herriko eta Errioxako 194 bikote hartu dute parte guztira. Igandean 9 final jokatuko dira, txikiak, umeak 2, umeak 1, kimuak, haurrak 2, haurrak 1, kadeteak 2, kadeteak 1 eta gazteak mailetan.

Omenaldia Lacalleri

Sari banaketaren aurretik aurten zendutako eta urteetan txapelketako antolaketako partaide izan den Alberto Lacalleri omenaldi xumea egiten zaio.

43. San Migel txapelketako finalak (nagusiak)

Larunbatean, 10:00etatik aurrera

Lau t'erdian: Eneriz / Etxeberría

3. maila: Jokin-Muñoa / Mendoza-Mendoza

2. maila: Eneriz-Borrega / Muñoa-Insauti

1. maila: Urteaga-Lauzirika / Sueskun-Nogueira

22 urtez azpikoak: Murgiondo-Mariez-kurrena / Txiapuso-Aranguren

San Migel-Sutegi txapelketako finalak (kategoria txikiak)

Igandean, 9:00etatik aurrera

Txikiak: Mintegi-Kerejeta (Idiazabal) / Hegoi-Aitor (Olazti)

Umeak 2: Perez-Bernalte (Elorrio) / Barandiaran-Otegi (Zegama)

Umeak 1: Garmendia-Imaz (Arbizu) / Unax-Iker (Etxarri Aranatz)

Kimuak: Egiguren-Labaka (Azpeitia) / Artaraz-Emaldi (Zeanuri)

Haurrak 2: Barranko-Senar (Etxarri Aranatz) / Larrabal-Arandia (Amurrio-Dima)

Haurrak 1: Yuste-Muguruza (Laudio) / Igoa-Irisarri (Zizur-Barañain)

Kadeteak 2: Otxoa-Lazkoz (Etxarri) / Bordege-Garai (Zaramaga-Gasteiz)

Kadeteak 1: Sagasta-Azkarraga (Elorrio) / Egiguren-Murua (Azpeitia-Arrasate)

Gazteak: Elola-Roldan (Bidania-Goiatz-Zizur) / Egiburu-Garmendia (Lazkao)


>>

Zabaleta: "Ongi osatzen ari naiz"

Hilabete pare batean frontoietara bueltatzea espero du Etxarrengo atzelariak

Ekainaren 4an egin zioten ebakuntza Etxarrengo Jose Javier Zabaleta pilotariari. Lesio konplikatuaren eskuin hankako txorkatilan. "Txonboloko ligamendu batzuk hautsita zeuden, tendoi bat partzialki apurtuta, txorkatila hezur txiki batek ez zegokion tendoiari jotzen zion, sekulako oinazeak eraginez..." adierazi digu Zabaletak.

Atzelari etxarrengarra Ezkurdiarekin batera Binakako Txapelketa jokatzen ari zela, finalerdien aurreko astean hasi zen oinazeak nabaritzen, Jokin Etxanizekin entrenatzen ari zela. "Txonboloko oinazeak sentitzen hasi nintzen, probak egin nituen eta txorkatilan nuen guztia atera zen. Medikuek esan zidaten aspaldiko kontua zela, lesio hori igual 14 urtetatik edo izango nuela, baina orain arte ez zidala minik eman. Lur jota geratu nintzen, halako lesioa Binakako finalerdietan geundela... Josebari lagundu nahi nion, biak



txapela lortu nahi genuen... eta txorkatila ongi lotuta eta berotuta lortu nuen finalerdietako hiru partidak jokatzea. Lehena irabazi genuen eta beste biak oso gutxi-gatik galdu. Ahal genuena egin genuen: finalera sartzeko puntuan egon ginen baina ez genuen lortu, txapelketak ihes egin zigun" azaldu digu Zabaletak.

Helburua: Binakakoa


Ekainaren 4an egin zioten ebakuntza eta guztia ongi doala nabarmendu du Etxarrengoak. "Orkatila poliki-poliki badoa, orain arte oso ongi joan da dena. Ez dut oinazirik eta azken aste honetan askoz hobe nago. Beste ariketa batzuk egiten ari naiz, bizikletarekin hasi naiz, gomarekin ariketa berezi batzuk... Egunero noa Gasteizera ariketak egitera" azaldu digu. Zabaletak bi hilabete frontoietara itzultzea espero du. "Agorriaren erdialdean pilota ukitzen hasiko naiz, eskuak egiten. Gogo asko ditut entrenatzen hasi eta frontoietara itzultzeko. Ia bi hilabete pasa dira, errekeruperatzeko gutxiago falta da eta ia hau ere pasatzen den" aitortu digu. Helburua Binakako Txapelketarako %100ean egotea da. "Abendurako binakakorako ongi egon nahi dut. Atzera ere, Josebarekin tokatzen bazait ia hirugarrenean lortzen dugun! Bestela, edozeinekin jokatuko dut gustura, guztiak lagunak baikara" gaineratu du.

Mendi lasterketak

Munarriz 9.a eta Katarain 12.a Collaradan

Igandean Huescako Villanuak 2KV Collarada mendi lasterketa antolatu zuen. Proba ikusgarria zen, kilometro bertikal bikoitza, Pirinioetako paraje zoragarrietan jokatutakoa. A ibilbidean Collarada igo eta jaitsi behar zuten korrikalariak (17 km), eta B ibilbidean Collarada igo (8,5 km). Igoerakortate horretan 2.016 metroko desnibel positiboa zuten aurrez-aurre korrikalariak.

Collarada igo eta jaitseko proban 100 korrikalari pasa lehiatu ziren. David Prades (2:09:06) eta Maider Fraile (2:56:40) izan ziren azkarrenak. Aritz Munarriz etxarriarra izan zen lehen sakandarra, helmugan bederatzigarrena (2:24:35). Minutu gutxira sartu zen Beñat Katarain lakuntzarra, 12. postuan (2:30:49). Collarada igotzeko proban Ferran Teixido (1:24:14) eta Miren Zeterin jauregi (1:54:49) nagusitu ziren. Iraitz Senar 32.a sailkatu zen (1:57:01).



>>



Aitor Zubieta.

Zubieta aurrera eta Ezkurdia Bizkaiko bost t'erdiko torneotik kanpo

Artolak eta Zubietak Olaizola II.a eta Aretxabaleta izanen dituzte aurkari finalerdietan eta Ezkurdia txapelketatik kanpo geratu da

Asteburuan hasi zen Aspeke eta Asegargerekin antolatutako Bizkako bost t'erdiko Torneoa. Ostiralean Arrigorriagan jokatutako lehen jardunaldian, Danel Elezkanori eta Beñat Rezustari 13 eta 22 irabazi zieten Mikel Urrutikoetxea ordezkatu zuen Iñaki Artolak eta Aitor Zubietak. Lehen zatian paretsu aritu ziren bi bikoak, baina ondoren Artolak Elezkanok baino gehiago asmatu zuen 10 eta 11tik aurrera zazpi tanto segidan egin zituzten Artolak eta Zubietak eta, azkenean, 13 eta 22 gailendu ziren. Finalerdietan Artolak eta Zubietak Olaizola II.a eta Aretxabaleta izanen dituzte aurkari igandean, 17:00etan, Etxebarrin (ETB1).

EZKURDIK TANTO BATEGATIK GALDU

Igandean Mallabian jokatutako partida luze eta gogorrean Berasaluze II.ak eta Untoriak tanto bateko alde eskasarengatik irabazi zieten Ezkurdiari eta Merino II.ari, eta Irujoren eta Barriolaren kontra Bizkaiko bost t'erdiko torneooko finalerdia jokatzeke sailkatu ziren.

Berasaluze izan zen partidako protagonistea nagusia. Hala ere, Ezkurdia eta Merino II.a ongi defendatu ziren. Ezkurdiak sakez min handia egin zuen. Arbizuarra eta errioxarra bi aldiz etorri ziren gora eta, azkenean, 21era berdindu zuten. Baina azkeneko tantoan Berasaluzeren erasoak fruitua izan zuen, eta tantoa euren alde erori zen eta Arbizuarra txapelketatik kanpo geratu zen.

EZKURDIA-ZUBIETA BIKOTEA GASTEIZEN

Asteartean aurkeztu zuten Andra Maria Zuria Torneoa. Ezkurdiak eta Zubietak bikotea osatuko dute eta Irujo-Rezusta izango dituzte aurkari, abuztuaren 6an. Beste multzoan, Urrutikoetxea-Albisuk Olaizola II.a-Beroizen kontra jokatuko dute abuztuaren 5ean. Finala 8an jokatuko da.

Triatloia

89 triatleta Sakanako XIV. Haur Triatloian

Ekain Imazek irabazi zuen aurre-benjamin mailan eta Egoi Lakuntza eta Unai Villalobos bigarrenak izan ziren benjaminetan eta haurretan

89 triatleta bildu ziren larunbatean Urdiaingo igerilekuetan, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako XIV. Haur Triatloian parte hartzeko asmoz. Guztira 122 neska-mutiko zeuden izena emanda, baina 33 ez ziren agertu. Proba Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu zuen, Sakanako Triatloi Taldearen, Urdiaingo Aitziber elkartearen, Urdiaingo Udalaren eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin.

Triatloiak igeriketa, bizikleta eta korrika batzen ditu. Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuetan burutu ziren eta bertan kokatu ziren ere aldatetako egiteko boxak. Txirrindularitza eta korrika probak Urriztiko, San Pedroko eta Sarabeko paraje bikainetan jokatu ziren. Eguraldia lagun, hasieran kategorian nagusietakoak lehiatu ziren, jubenilen eta kadeteen probak, eta ondoren lehiatu ziren haurrak, kimuak, benjaminak eta aurre-benjaminak. Guztira 89 triatleta aritu ziren, baina horietatik bi erretiratu egin behar izan ziren. Paraje zoragarrian ospatutako Sakanako XIV. Haur Triatloian Sakana Triatloi Taldeko triatletek emaitza bikainak lortu zituzten. Guztira 15 neska-mutiko sakandar lehiatu ziren. Nabarmentze alde-ara, aurre-benjaminetan Ekain Imazek irabazi zuen eta Alain Razkin bigarrena izan zen, benjaminetan Egoi Lakuntza bigarrena sail-

Emaitzak:

AURRE-BENJAMINAK

Neskak:
1. Elena Arcas (Hiruki) 6:09

Mutilak:
1. Ekain Imaz (Sakana) 4:46
2. Alain Razkin (Sakana) 4:53
6. Aitor Aldunate (Sakana) 7:32

BENJAMINAK

Neskak:
1. Daniela Malucelli (Aranguren) 7:47

Mutilak:
1. Irai Arruiz (Hiruki) 6:41
2. Egoi Lakuntza (Sakana) 6:54
6. Ibai Perez (Sakana) 8:20
8. Owen Berdote (Sakana) 8:27
Iker Begiristain (Sakana) 8:33
11. Iñaki Sanchez (Sakana) 9:27
12. Pablo Senosiain (Sakana) 10:17

KIMUAK

Neskak:
1. Maria Irigoien (Trikua) 14:14
9. Ane Gil (Sakana) 16:17

Mutilak:
1. Iñaki Apestegia (Ur gazia) 13:26
6. Xabier Borrega (Sakana) 14:09

HAURRAK

Neskak:
1. Carmen Riaño (Atalaya) 24:44

Aitziber Agirre erretiratu egin zen.
Mutilak:
1. Dario Silvestre (Atalaya) 22:24
2. Unai Villalobos (Sakana) 22:32
10. Eukene Perez (Sakana) 27:24
12. Ekain Alegre (Sakana) 28:24

KADETEAK

Neskak:
1. Irantzu Beloki (Saltoki) 42:13

Mutilak:
1. Jon Napal (Ur gazia) 34:55

JUNIORRAK

Neskak: Bidarte Barasoain (Hiruki) 48:12

Mutilak: Aurkeztu gabe

katu zen eta haurretan Unai Villalobosek postu bera lortu zuen. Bukatzerakoan, guztiek merezitako ogitartekoa eta zukua dastatu zuten.



Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuetan egin ziren eta besteak inguruan.

Campusa

Gaur despedituko da Mank-ek antolatutako udako Sakanako Triatloi Campusa. Guztira 23 nes-

ka-mutiko dabilta triatloian trebatzen, Aitor Mozo eta Urko Berduden esanetara, Altsasuko Zelandi kiroldegian.

Kayak

Kayak: aurten Irurtzunen

Asteartean, garilaren 28an, 17:00etan, Irurtzungo igerilekuetan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udarako prestatutako eskaintzaren barruan, asteartean, garilaren 28an, kayak jardunaldia izanen da, 17:00etan, Irurtzungo igerilekuetan. Ekimena antolatzeko Irurtzungo Udalaren laguntza izan du Mank-ek. 5 urtetik gorako neska-mutiko guztiek parte hartu ahalko dute jardunaldian.

DOHAINIK BAINA IZENA EMAN BEHAR DA

Ekimena dohainik da, baina izena eman beharko da Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com) edo herri bakoitzeko monitoreei esanez. Izena ematen duten partaideen arabera autobusa izanen da. Aurreko urtean 5-14 urte bitarteko 35 partaidek hartu zuten parte Olaztiko igerilekuetan burutu zen kayak jardunaldian.

Igeriketa

Iñaki Gallego Sardina Zeharkaldian

Sestaotik Santurtzira igerian joateko proban 37.a izan zen altsasuarra

Larunbatean Sardina Zeharkaldia jokatu zen, Sestao eta Santurtzi igerian batzeko igeriketa proba (3,3 km). 150 igerilari hartu zuten parte, eta Ibon Salazar bilbotarra izan zen azkarrena (39:48). Iñaki Gallego triatleta altsasuarra 37.a sailkatu zen (57:49), bere kategoriako 11.a.


Futbola



Futbol campusa


Mank-ek antolatutako futbol campusean aurreko astean 2003tik 2005era bitartean jaiotako 47 neska-mutiko trebatu ziren futbolearen eta aste honetan 2000tik 2002ra bitartean jaiotako 31 gaztetxok hartu diete lekukoa. Begiraleak Peio Goikoetxea, Iokin Lobo eta Jon Lapuente dira. Atzo, Errealeko instalazioak ezagutu zituzten. Partaideak: Selma Larabas, Eneko Vera,

Mikel Arellano, Aitor Flores, Jon Aldasoro, Andoni Diaz, Endika Saez, Jokin Bereziartu, Xabier Manero, Alain Davila, Pablo Viedma, Beñat Mendez, Unai Santano, Alex Santano, Haritz Goikoetxea, Aitor Lopez, Javier Diaz, Beñat Aldasoro, Javier Morras, Mikel Sayas, Eneko Galarza, Nerea Arellano, Eder Zuñiga, Imanol Sanchez, Urko Maxim Izagirre, Julen Goikoetxea, Ekai Urkijo, Hasier Galarza, Unai Alava, Jonan Zelaia eta Mikel Apaolaza.



OLAZTIKO UDALA

Tel.: 948 56 24 46 Faxa: 948 56 25 29
Garzia Ximenez enparantza 1 p.k. 31809 Olazti (NAFARROA)



Ongi pasa festetan!

olazti@olazti.com · www.olazti.com
kultura@olazti.com · Olazti kultura

Mendi lasterketak

Iñaki Martiarena hirugarrena Soraluzen

IV. Iñaki Ruiz mendi lasterketan Asier Frias irabazletik minutu t'erdira sartu zen

Garilaren 12an Soraluzen jokatu-ko IV. Iñaki Ruiz mendi lasterketa Asier Frias elorriarrak irabazi zuen (1:41:30). Uhartte Arakilgo Iñaki Martiarena hirugarrena izan zen helmugan, minutu t'erdira (1:43:03). Bestalde, egun berean Zallan jokatu-ko XX. Galarleiz mendi maratoian (42 km) Pedro Jose Hernandez plasenziarra nagusitu zen helmugara iritsitako 448 korrikalarien artean (3:29:43). Felix San Roman altsasuarra 236.a sailkatu zen (5:25:35).

Piragismoa/espeologia

Piragua Izurdiagan eta espeleologia Urbanan

Larunbatean lagun eta familia artean burutzeko eskaintza dakar Mank-ek

Sakanako Mankomunitateak bi jardura berezi antolatu ditu larunbaterako: goizean Izurdiagako ibaian piragismoa lantzeko aukera eta arratsaldean Urbanako Cristinos (Larraona) kobazuloan espeleologian murgiltzea. 8 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta igeri egiten jakin behar da. Jon Goñi izango da irakaslea. Bi ikastaroetan izena eman daiteke edo soilik bakarrean. Izena ematea itxita dago, baina informazioa jaso nahi duenak Mank-eko kirol zerbitzuan galdegin dezake (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com)

Txirrindularitza

Rural Kutxako Lopez garaile Zamoran

Talde sakandarrarendako 11. garaipena lortu zuen galiziarrek

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Daniel Lopezek Zamorako Itzuliko azken etapa irabazi zuen, denboraldiko bere hirugarren garaipena eta Rural Kutxaren 11.a lortuaz. "Taldea, beste behin, bikain lan egin du. Osopozik nago" azaldu zuen Galiziako txirrindulariak.

Motoziklismoa

Fernando Urra Villenako podiumean

Villenan jokatu-ko Munduko Supermotard Txapelketako SM Open mailan 3.a izan zen olaztiarra

Uztailaren 11n eta 12an Munduko Supermotard Txapelketa jokatu zen Valentzian, Villenan. Fernando Urrapilotu olaztiarrak SM Open mailan parte hartu zuen eta podiumera igo zen, hirugarren postua lortuta.

Supermotarda asfalto eta lurra konbinatzen dituen modalitatea da. 15 minutuko bi lasterraldi egin behar izan zituzten pilotuek, eta egiten zuen berospak are gehiago zaildu zuen proba. Fernando Urrak zortzigarren postuan egin zuen irteera eta lehen lasterketan bosgarren



postura igotzea lortu zuen, izugarri arriskatuta. Zirkuitu berriari primeran egokitu zen eta denborak jaisten joan zen olaztiarra. Horrela, bigarren lasterraldian

hirugarren postura igotzea lortu zuen eta postu horri eutsi zion. Bi lasterketan denborak kontuan hartuz proba hirugarren postuan despeditu zuen Urrak.

Igeriketa



Soroslea Urdiainen.

Igerilekuko soroslea izan nahi duzuz?

Abuztuaren 17tik irailaren 4ra Mank-ek igerilekuko sorosle izateko ikastaroa antolatu du Altsasun, DYAk eskainiko duena

Sakanako Mankomunitateak, Altsasuko Udalaren laguntzarekin, igerilekuko soroslea izateko ikastaroa antolatu du Altsasun, DESA ikastaroa barne duena, hau da, desfibriladore semiautomatikoa erabiltzen ikasteko ikastaroa barne duena. Ikastaroa abuztuaren 17tik irailaren 4ra emango da Altsasun, astelehentik ostiralera, goizez. 56 orduko ikastaroa izanen da eta bukatzerakoan ikasleek igerilekuko

sorosle lanbidean aritzeko aukera emango dien diploma jasoko dute eta Mank-eko lan poltsan sartuko dira. DYAk eskainiko du ikastaroa.

Izena emateko eta informazioarako

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 370 euro (diru-laguntzak egonen dira). 16 urtetik gorakoek eman ahal dute izena eta gutxienez 16 pertsonak eman beharko dute izena ikastaroa gauzatzeko.

Txirrindularitza

Aramendia eta Etxeberria berriro podiumean

Burundakoak hirugarrenak izan dira

Burunda Txirrindularitza Klubean asteburuko dute zer ospatua. Larunbatean Lizarran junior mailako lasterketa jokatu zen (105 km). Azkarrena Baque taldeko Ibai Pastor izan zen (2:51:28). 15 segundora Quesos Albenizko Eneko Aramendia sartu zen, 3. postuan. Bere taldekide Juan Alberto Jimenez 13.a izan zen, Irabiako Gorka Arbizu 15.a eta Albenizko Asier Etxeberria 16.a.

Berri onak igandean izan zuten segida, kadeteen mailako Tuterako proban (55 km). Lizarrako Juan Riaño nagusitu zen (1:22:30). Quesos Albenizko Josu Etxeberria 3.a sartu zen, 1:14ra, Ailetz Lasa 7.a, 1:21era, Oihan Vinagre 9.a, 1:33ra eta Hodei Zia 12.a, 1:57ra. Imanol Galarza 16.a sartu zen, Ander Rosado 22.a, Josu Jaka 27.a, Unai Lizarraga 31.a, Beñat Etxezarreta 32.a, Javier Mitxaus 36.a eta Iker Cerviño 37.a. Etxeberria lehen nafarra izan zen eta lidergo mantentzen du.



Josu Etxeberria, gorenean.

Txikienak Iturmendin

Igandean eskola mailako txirrindularitza proba jokatu zen Iturmendin, Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarria.

Nafar Kirol Jolasen sailkapen orokorra kontuan hartuta -Mutiloa, Artika, Tafalla, Tuter eta Iturmendiko probak- eta lehen 10 postuak aipatzearen, kimuen lehen mailan Aralarreko Aimar Tadeo hirugarrena izan da, Burundako Mikel Unzilla laugarrena, Aralar-

ko Mikel Ieregi zazpigarrena, Aralarreko Oihan Arana zortzigarrena eta Burundako Ander Villalobos eta Unax Trevejo zortzigarrena eta bederatzigarrena.

Kimuen 2. mailan Burundako Jon Chamorro bosgarrena eta Martzel Etxeberria seigarrena izan dira. Haurren lehen mailan Burundako Iker Mintegi hirugarrena sailkatu da eta Aralarreko Aitor Alberdi, Sergio Romero eta Igor Arrieta bosgarrena, seigarrena eta zortzigarrena. Haurren bigarren mailan, azkenik, Burundako Unai Villalobos laugarrena izan da eta Aralarreko Urko Gorriti 12.a.

Ginkanan, berriz, kimuen mailan Burundako Jon Chamorro izan da irabazlea. Aralarreko Jon Erdozia laugarrena sailkatu da eta Burundako Oihan Etxeberria zazpigarrena. Aralarreko Aimar Tadeo zortzigarrena izan da, Burundako Mikel Unzilla bederatzigarrena eta Burundako Martzel Etxeberria hamargarrena. Haurren mailan Aralarreko Igor Arrieta bigarrena izan da, Ioseba Huarte 5.a, Sergio Gomez 6.a, Urko Gorriti 7.a eta Maria Beraza 8.a. Burundako Unai Villalobos 10.a sailkatu da.



Non erabili

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan %5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitaketan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

BUJANDA OGI BERRI

Ongi pasa festetan!

OGI BERRI

Kale Nagusia 40, behea • Olazti

BRUN FORJARIK GASTEIZKO JAZZALDIAN: Larunbatean, Jazzaldiarekin batera antolatzen den artisau azokan, Brun forjak izan zen. Akordioilari eta baxu-jole batekin batera aritu ziren lanean.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta

Kalamata Dance Festival

Egunero albistegiak Greziaz ari dira, baina nik gaur beste Grezia bat aurkeztu nahi dizuet. Kalamata hirian nago, Grezian. Kalamata Dance Festivalean dantza klaseak ematen. Jaialdia 1995ean sortuzen, dantzagaraikearen ikerketa, hezkuntza, sorkuntza eta ekoizpen artistikoa helburu zituela. Helburu hauek burutzeko jaialdiak goizetan eta arratsaldeetan ikastaro-akeskaintzen ditu eta gauetan ikuskizunak. Herrialdeko gaurko egoera latza izan arren, artistek jaialdia aurrera nola eraman duten ez da albisteetan agertzen. Egoeralaria da, diru murrizketa handiak jasan dituzte, dantzari gehienek egoera honetan ez dute dirurik eskaintzen dienekin zetan parte hartzeko eta lana bikoiztu egin zaie antolatzaileei, baina arazo hauek guztiak greziarrei ez die irribarra aurpegitik kendu, ezta umore ona ere. Iritsi naizenetik dena oso ondo antolatuta egon da, jendeak gogo izugarriak ditu ikasteko eta duela asko ikustenez nuen dantzarekiko bero-tasuna nabarmentzen da. Ikasleek ordu pila ematen dituzte dantzan eta gero ikuskizunetara doaz ahal duten informazio guztia irentsi nahian. Bestalde, antolatzaile-artistei ematen ari zaizkigun tratua ezin hobea da. Politikaren gaia eguneroko ogia dugu, noski, euren etorkizuna zein izango den eta espainiar estatuarena antzekoa izango den eztaba idatu dugu behin baino gehiagotan, baina egoerari aurre egindotela ez dute dudarik eta hemen egiten ari diren lana adibide argiena da.

Joan nintzen lehen ikuskizunean, hara non nire sorpresa beste euskaldun bat eszenatokian aurkitu nuenean. Igor Urzelaik eta Moreno Solinasek (sardiniarra) *Idiot-Syncrasy* performance zoragarria eskaini ziguten. Euskal dantza tradizionala oinarrituz saltokahasi eta saltokajarratzen dute ordu batez emanaldia bukatzen den arte. Bitartean egoera ezberdinak aurkezten dizkigute non umore eta konposizio espazialaren bitartez ikusleak dantzariekin berehala konektatzen garen, haiengandik begiak ezin kenduz. Azken urtean ikusidudansaio onena izandela esan dezaket eta Kalamata Dance Festivalak eskaini dit aukera. Duela 21 urte hasi eta mantentzen ari den jaialdia desagertu ez dadila espero dut, horrelako jendearen beharra baitugu, gauzak zailak direnean errazak egiten dituztena hain zuzen ere.

Sagriren erakusketa Katalunian

Sant Hilari Sacalm herriko Can Rovira beheko solairuko gelan Sagri Mauleon Ezkutariren erakusketa dago ikusgai. Etxarriarrak Artea eta nire lurraldea erakusketa ostiralean mustu zuen eta hilaren 31ra arte izanen dira bere lanak ikusgai.

Akordeoi campusa Iruñera eraman dute

Hauspo Alai elkarteak aste honetarako eta hurrengorako antolatutako akordeoi campusa Iruñean egiten ari dira. Altsasuko Otadiko Kristo Deuna aterpean egin behar zena Iruñeko Fuerte Prinzipen ari dira egiten. Antolatzaileek esan digute, azken orduan Nafarroako Gobernutik adierazi zieten Altsasuko aterpean langile falta zegoela eta Iruñeko aukera eskaini zieten. Ikasleak Altsasu ezagutu gabe gelditu dira eta bi kontzertu galdu ditugu.

Bakarrizketa umoretsuak

Ostegunean, 23:00etan, Altsasuko Haritza tabernan

Programazio mustu berriari segida emateko, Haritza Tabernan heldu den ostegunean bakarrizketa saioa antolatu du. Moviemento Bola talde iruindarreko bakarrizketagileak pasako dira Altsasuko tabernako oholatzatik.

Ingalaterratik bisita bueltan

Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzak joan den urteko agorrilean aste bat eman zuen Ingalaterra hegoaldean. Hiru kontzertu eman zituen. Taunton hiriko Amici abesbatza izan zuen anfitrioi. Orain paperak aldatu eta harrera egiten duena Erkudengo Ama abesbatza izanen da. Ingalaterratik heldu den ostegunean etorriko dira eta ostiralean, hilak 31, kontzertua eskainiko dute Urdaingo elizan.

Jazza Arkangoan

Gaur, 23:00etan, Altsasuko Arkangoa tabernan

Esencia Jazz talde iruindarrak swing askoko jazz doinuak aletuko ditu gaur gauean Altsasuko Arkangoa tabernan. Goi mailako musikari profesionalen osatutako hiruko bat izanen da oholtzan. Baxua, gitarra elektrikoa eta klarinetaren laguntzaz publiko guztiendako moduko kontzertua emanen dute. Jazza ezagutzeko aukera aparta.

70eko hamarkadara musika bidaia

Domekan, 1:00etan, Olatzagutiko Clinker tabernan

Woodstock Blues Band entsegurik egiten ez duen taldea da. Taula gainera igo eta jo! Horixe egiten dute. Laukoteak rock and rolla, bluesa, rythm'n'bluesa, funkya, soul eta 70. hamarkadako bestelako doinuak jotzen du.



180 proposamenen artean BBVA fundazioak aukeratutako 10 bideo-arte proiektuen artean dago altsasuarrarena

Eñañako tunela, espedita. Proiektu hori da Txuspo Poyo Mendiak dirulaguntzarekin garatuko duena. Kantabria eta Burgos arteko tren tunel horrek 7 km luze du. 1942 eta 1959 urteen artean eraiki zuten eta bi trenbide hartzeko gaitasuna du. Baina sekula ez da erabili. Poyok tunelaren eraikuntzaren inguruko ikerketa egiten du.

Errealaren, sinbolikoaren eta imaginarioaren arteko erre-presentazio ereduetan paisaiaren eraikuntzari buruzko ikuspegi garai-kidea ematea da altsasuaren asmoa. Mekanismo horien bidez belaunaldien memoria bihurtzen da. Bideo-arte lan hori "tunelaren adimenaren zulora sartu eta jaitzen da, atmosfera irreal sortuz, espazio ahaztu eta galduen barruan psikikoa eta soziala lotzeko asmoz". Bideoarte egiteko Poyok camara termikoa, drona eta animalai gainean jarritako kamara aleatorioa erabiliko ditu.

Bazkide sarituak

- 1.- **Elixabete Urkia Arretxe**
(Etxarri Aranatz)
- 2.- **Cruz Gartziandia Gartziandia**
(Unanu)
- 3.- **Luis Mari Malo Azpiroz**
(Altsasu)
- 4.- **Manuela Uranga Lazkano**
(Lakuntza)

Eskaerak AZKAR eta EROSO hartzeko

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275 argi@guaixe.eus

Arbizu CAMPING
On egin

menu-kartak, eskaera orriak, mantelak, baso-azpikoak

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
aurkezpena							
euria: %	7%	15%	10%	10%	10%	18%	13%
Min: Max	13 Max: 26	14 Max: 20	12 Max: 26	13 Max: 26	14 Max: 24	13 Max: 21	11 Max: 21

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	37	16.5	61.8
Etxarri A.	35.3	13.9	35
Altsasu	33	14.5	29.9
Aralar	28	11.6	60.6
Urbasa	31	13.8	79.5

: ilargiaren aldia>>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
ilargiaren aldia				
egunak	24	31	7	14

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Sakanako gida

2015-2016

IRAGARRI NAHI DUZU?

AZKEN EGUNA: UZTAILAK 31

948 564 275 · 948 562 107

publi@guaxe.eus (Eneida)

publizitatea@guaxe.eus (Maria)

>> 11 galdera

Aritz Barandiaran

Olaztiko Barandi taberna

Testua: Maider Betelu Ganboa



1. Ametsa bete eta Barandi taberna zabaldu duzu Olaztin.
 Bai, betidanik gustatu izan zait zer-bitzari lana. Ikasketak ere horretara bideratu nituen. Jendearekin egotea gustuko dut, jendearekiko harreman hori. Olaztin taberna izateko ar hori beti izan dut. Anaia eta neska-lagunarekin batera kudeatuko dut taberna

2. Izenarekin ez zegoen zalantzarik, ez?
 Barandi deitzen hasi zitzaizkidan aspalditik. Tabernari beste izen bat jarriko banio jendeak azkenean "goazen Barandirengana" esango luke, ziur. Orduan, zertarako beste izen bat jarri?

3. Saltsa askotako perexila zara: Olaztiko gaztetxea, musika taldeetako gidaria, herri bazkarietan eta beste hamaika saltsetan boluntarioa...
 Olaztiko gaztetxean 13 urtez dena eman dut. Ez dut aterik guztiz itxi. Festetarako prestakuntzetarako esku bat bota diet. Eta beste kolektiboetan ere esku bat botatzen jarraituko dut. Baina tabernarekin denbora gutxiago izango dut. Herri bazkarietan ezingo naiz orain bezala aritu, baina tabernan sukaldia ere badut eta agian beste modu batez eman dezaket laguntza.

4. Mirentxin gidariak kolektiboko boluntarioa zara.
 Eta kolaboratzen jarraituko dut. Sakanak apirila eta abenduko bidaien ardura hartzen du. 30 gidari boluntario inguru egongo gara. Presoen senideak euren kartzele-rako bisitetara eramatea, eurak horren eskertuta egotea... betetzen zaitu, asetsun handia da.

5. Zer eskaintzen du Barandi tabernak?
 Goizeko 8:00etan zabaltzen dugu eta hasieratik pintxoak eskaintzen ditugu, itxi arte. Horretaz gain bokatak, hanburgesak, pizzak, plater konbinatuak, arrazioak eta beste egiten ditugu, edozein ordutan. Telefonoz egin daitezke eskariak (948 469 193). Etxeko produktuak diraguztiak, bertako produktuekin guk egindakoak: pizzak, fritoak...

6. Kontzertuen munduan mugitu zara Barandi. Zure tabernan kontzertuak egongo dira?
 Ditugun mugak kontuan izanda, espazioarena batez ere, ahal duguna egiteko asmoa dugu, formatu txikiko ekitaldiak bereziki: baka-rrizketak, kontzertu akustiko txikiak, formatu txikiko antzerkiak... Ildo honetan, Hesian musika taldeko txoferra izaten jarraituko dut aurten; ikusiko dugu aurrerago.

7. Sarasate plazara ematen du tabernak eta plazan terraza bikaina duzu.
 Bai, bertan lasai-lasai egon zaitezke. Familiendako, haurrendako eta helduendako toki aproposa da, gainera herri erdi-erdian. Egunean publiko guztietarako tokia da gurea. Gauean, argia jaitsi eta beste giro bat egonen da.

8. Jendea geroz eta gutxiago ateratzen dela, krisia, belaunaldi berrien ohitura ezberdinak... Halako panoramarekin nola animatu zara taberna zabaltzera?
 Egia da ekonomikoki gauzak asko aldatu direla. Egun, hipoteka, ohikogastuak, seme-alabenak eta beste pagatuta, ezer gutxi gelditzen da. Baina nik posible ikusten nuen

Olaztin taberna zabaltzea, goizetik hasita pintxoak eskainiz eta bezeroak ongi zainduz... Duela bi urte erosi nuen etxea eta taberna behean muntatu dut. Eta inolako laguntzarik gabe, gainera. Ekintzaileendako laguntzak daudela entzuten da, baina guk ate guztiak jo ditugu eta ezer. Zeuden diru-laguntza apurrak berehala bukatzen ziren eta gu kanpo geratu gara.

9. Zer izan da okerrera, burokrazia eta paper kontua?
 Zalantzarik gabe. 2014 urte osoa burokrazia kontuekin bueltakagaldut. Bankuekin hipoteka kontuak lotzen, lizentzia eskaerak eta beste tramitatzen... une batzuetan pentsatu izan nuen ezinezkoa izangozela. Baina azkenean lortu dugu.

10. Mustutzea ostiralean izan zen. Zer moduz?
 Ongi, asteburu guztian izugarri lan egin genuen. Oso eskertuta gaude. Sakana osotik, Goierritik, Iruñetik, Gasteiztik... jende asko etorri zen. Gaur festak hasiko dira eta taberna ahalik eta ordu gehienetan egongo da zabalik. Bokatak uneoro eskatu ahal izango dira. Bazkaltzeko plater konbinatuak eman ditugu, baina gauez ez.

11. Trabak traba, ekintzaile bezala euren ametsa lortzeko animatuko zenuke jendea?
 Zalantzarik gabe. Norbaitek amets bat badu aurrera eraman dezala. Gauzak ongi pentsatu behar dira, merkatua aztertu eta bideragarritasun plan bat egin, zure buruan duzun negozio hori bideragarria izan daitekeela ikusteko. Eta planak aurrera egiteko esaten badizu... Aurrera! Bizitza bakarradugu.